


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gregoria Albizu Beraza

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Tolosako Larramendi auzoko kale-etxe batean jaioa. Aita tolosarra zuen, eta ama, berriz, nafarra, Uztegikoa. Bederatzi urte bete artean Tolosan bizi izan baziren ere, gerra bukaera aldera Uztegiko baserrira joan ziren bizitzera ama eta seniderik gazteenak. Aitak txapela-fabrikan egiten zuen lan, eta han gelditu zen bera. Gregoriak bost urte egin zituen Uztegin. Handik Arribera joan zen neskame. Handik itzuli eta hamalau urterekin Amarotzeko lima-fabrikan hasi zen lanean, limak garbitzen. Handik Donostiara joan zen neskame. Han, ordea, pneumonia harrapatu zuen eta medikuak mendialdeko klima komeni zitzaiola esan zion. Hala joan zen neskame Abaltzisketako Larraitzeko tabernara. Hogei urterekin, Abaltzisketako 'Otamendi Bitarte'-ra ezkondu zen.

Zintak

TOL-039

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-10-29
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberría, Eider

TOL-040

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-10-29
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Gerra osteko goseari aurre egiten

- **Erref:** TOL-039/002
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:01:09. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

9 urte izan bitartean, kalean bizi izan zen. Baina gerra osteko goseari aurre egiteko, amaren baserrira joan ziren Uztegira; aita eta anaia, baina, Tolosan gelditu ziren txapel-fabrikan lanean. Aitak presa garbitzen zuen eta askotan urak kontserba-latak ekartzen zituen berekin; aitak lata haiek hartu eta etxera ekartzen zituen.

2. Gurasoek lan asko egin zuten goserik pasa ez zezaten familian

- **Erref:** TOL-039/003
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:03:57. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gerra ostean ez zuten halako gosea pasa; aitak lehengusuaren baserritik sagardoa ekartzen zuen. 9 senide izanda, gurasoek lan asko egin zuten denak aurrera ateratzeko.</p>

3. Leihora irten eta tiroei ihes egin behar

- **Erref:** TOL-039/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Tolosan nazionalak sartu ziren garaian, paper-fabrikan soldaduak egoten ziren; eta behin ozta-ozta libratu zen Gregoria heriotzatik, leihora atera zen batean tiroak bota baitzizkioten leihora.</p>

Transkripzioa

- Baiño goatzen zaitena da, sei urte izango nitun, sei-zazpi urte o... Tolosan, soldadu jun zien garaian gerra denboran, Arkauteneko fabrika, papeleran eoten zien soldaduk. Eta goatzen zait behintzet italianok zien, gorri-urdiñek eta borla zurikin, italianok garai hartan e? Eta atera nintzen hola... "O sea" guk genduken, zeak, leihok-eta bide, pasadizo bat alde. Baiño pasadizo hortatik juten zan kanposantura. Kanposantuko bidea zan. Eta behin'e ez

zait ahaztuko: atera naiz ume gisa, eta leihoa atera naiz, eta bastante aurea atera nintzen, ta tiro [...] bota zizkien kotxetik. "Solamente" airoso sartu nintzen. Tirok bota zizkien e? Eta "solamente" ez det uste gehio arrimatu nintzenikan leiho hartara.

4. Tolosako bonbetatik ihesi Uztegiko baserrira

- **Erref:** TOL-039/006
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Aldameneko etxean gerra garaian bonba bat bota zuten, baina bertan bizi zen emakume zaharra onik atera zen. Bonbak bota zituzten garaian, Gregoriaren familiak Tolosatik alde egin zuen: Uztegira joan ziren eta 5 urte eman zituzten han; aita eta anaia, ordea, Tolosan gelditu ziren txapel-fabrikan egiten baitzuten lan.

5. Santa Luziako eskolan ikasia

- **Erref:** TOL-039/008
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:09:23. **Bukatu:** 00:10:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Tolosan bizi zirenean, Santa Luzia eskolara joaten zen. Nesken maistra Donostiatik etortzen zen eta mutilen maistra Tolosatik bertatik. Dotrina parrokian ikasten zuten.

6. Eskolatik piper egiten zuen

- **Erref:** TOL-039/009
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:12:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolaz gain, gurasoek eskola partikularretan ere apuntatu zuten Gregoria, baina berak piper egiten zuen.</p>

Transkripzioa

- Eta geo ni akordatzen naiz, behintzet, ez dakit zenbat urtekin, baiño nere

gurasok pentsatu zuen partikularrea bialtzea; eskolaz gaiñea, partikularrea. Pagatzeko garaie bai iristen zitzaien, baiño ni eskola ez juten.

- Ze iten zendun ba?

- Bakarren bat harrapatuko nun jolasen ibiltzeko. Kalen bakarrik ez nintzan ibilliko. Baiño dakittena da hoi, ez nintzela juten eskolara. Eta oain "por ejemplo" juten ez bazea, gurasoi abixatu itten die. Ordun ez: "Ez zea juten? Pues ez zea juten!". Eta maestra harena ez zait goatzen izena, baiño lekue nun zan bai: oaingo San Frantziskoko eliz horren aldamenen. Ta partikular bialdu niñuen, baiño ez nintzan jun. geo hala ikasita geatu nintzen. Hala ikasita geatu nintzen.

7. Familiako giroa zaintzen

- **Erref:** TOL-039/013
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:21:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Etxean ez zuten egunero errezatzen arrosarioa, baina mezara ez zuten huts egiten. Gurasoak erlijiosoak ziren. Aita fededuna, gozoa eta errespetuz jokatzeko zuena zen. Gurasoek kontu handia jartzen zuten umeen aurrean arazoei buruz ez hitz egiteko. Umeak hezteko filosofiari buruz hitz egiten du.

8. Etxeko giro ona

- **Erref:** TOL-039/014
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:21:19. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

9 senide izanda, gogoan du nola antolatzen ziren etxean denak batera bizitzeko. Etxean ondo moldatzen ziren, borondatea eta autoritatea behar zen. Otorduetan denek batera jaten zuten.

9. Aitaren nortasuna

- **Erref:** TOL-039/015
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:26:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita tabernara joaten zen bokadiloa hartuta, han egunkaria irakurtzeagatik.

Aitak perretxikotara bila joateko zaletasun handia zuen: perretxikoak etxera ekartzen zituenean, seme-alabei azalpenak ematen zizkien onak eta txarrak bereizten jakin zezaten.

10. Amarotzeko lima-fabrikako lana

- **Erref:** TOL-039/018
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:29:57. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>14 urterekin Amarotzeko lima-fabrikan fabrika hasi zen lanean: goizeko 05:30ean jaiki eta oinez joaten zen hara Tolosatik. Lan txarra zen hangoa, uretan eta karetan garbitu behar izaten baitzituzten limak.</p>

11. Pneumonia 3. aldiz harrapatu zuenekoa

- **Erref:** TOL-039/020
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:34:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Donostian neskame zebilela, pneumonia harrapatu zuen. Orduan, medikuak aholkatu zion mendia aldera joateko.</p>

Transkripzioa

- Donostin naola, harrapatu nun pulmonie. Eta ordun mediku batek esan zion nere gurasoei mendira ateratzeko. Ni mendi aldera ateratzeko. Nunbait ez dakit ze billatuko zion. Baiño behintzet pulmonie. Eta, klaro, ni lehenago're bi aldiz pulmonie pasata neon. Bi aldiz pulmonie pasata neon, hemezortzi urtetako. Eta berriz'e pulmonie harrapatu nun ordun... Eta esan zien ni ateratzeko mendi aldera.

12. Nortasun handiko emakumea gaztetatik

- **Erref:** TOL-039/021
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:38:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Donostiatik Larraitz mendira eraman zuten lanera eta taberna batean egon zen neskame. Han zebilela, dantza lotua egiten zuen Gregoriak eta garai hartan bekatua zenez hori, eskandalua izan zen. Gainera, apaizak fama txarra jarri zion Gregoriari, konfesatzera joaten ez zelako. Behin aita eta Gregoria joan ziren apaiz harengana eta kontuak garbi utzi zizkion.</p>

Transkripzioa

- Eta etorri nintzen Larraitza, ekarri niñuen ez dakit nolaz edo zer, Larraitzea ekarri niñuen. Eta hor eendu nintzen, oain ez dao taberna hue, baiño taberna baten, neskame. Eta gero honea ezkondu nintzen, hortik honea ezkondu nintzen. Baiño eskandalua pranko jarri ta gero. Ni hor neola, nik eitten nun dantza jaietan jende gehio bezela're dantzan, agarraun. Ta ordun pekatue zan, ordun pekatue zan. Eta hemen zeon apaiza bat bizkaitarra, bizkaitarra zeon apaiza. Eta harek ikeragarri fama txarra jarri zian, baltsen dantza itten nulako. Herrira etorri, eta gizonezko guztiri neregatik gaizki hitz eitten. Eta ordun, hotako gazterie biltzen zan jai atsalden o illuntzea izen zan ostatun, herriko ostatun. Kartata edo, o tertulia o biltzen zan. Eta apaiz horrek bai gaizki iruittu edo gaizki, ez dakit. Kuestioa da behintzet ni ez nintzela astero konfesatzera jutun harena. Eta dantzan eitten nun tabernan, tabernan. Eta ikeragarritzko fama txarra jarri zin e?

- Eon e? Barkatu. Oaintxe e? Ta nolatan jarri zizun apaizak fama txarra? Nola lortu zun zuri fama txarra jartzia?

- Ba dantza itten nulako bakarrik! Baiño nik dantza denan bistan eitten nun! Tabernan eitten nun. Han neon neskame, eta bertan dantza eitten nun. Eta harek ezin eraman nunbait, harek ezin eraman. Eta behin, hala ai zala, nere aittei hots ein nion, eta ekarriarazi nun aitte, eta jun giñen apaiz horrena biok. Beira, behin'e ez diot horren gaizki iñoi hitz egin ere. Behin'e ez e? Baiño harei gaizki hitz eitten nion. Gaizki hitz ein nion, ez. Nik esan niona zan harei "Zuk nei kargua hartu behar ziazun aurrena, neregatikan herriko gazteri guzie gaizki hitz eittera jutea baiño. Nei aurrena kargua hartu behar ziazun. Baiño zu ez zea apaiza. Zuk damakizuna da sotana, baiño zu ez zea apaiza" esan nion, baiño halako muturrera jarriko nion. Eta gauze gehio esan nizkion. Baiño hemen nao. Hue zan hemeretzi urte nittun garaian. Baiño ni handikan urtebetea ezkondu nintzen. Eta bertara.

13. Kaleko umea izan arren, baserriko lanak egiten ondo ikasia

- **Erref:** TOL-039/022
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:38:12. **Bukatu:** 00:41:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Behin Gregoriak, mutil-lagunarekin zebilen garaian, gizon zahar batzuekin bizipen mingarria izan zuen. Handik urtebetera ezkondu egin zen baserrira: berehala ikasi zituen baserriko lanen gorabeherak, nahiz eta kalekoa izan.

14. 8etan lanean eta 10etan umea izan

- **Erref:** TOL-039/026
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:50:47. **Bukatu:** 00:53:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lehenengo haurra 21 urterekin izan zuen. Haurdun zegoela ere, lanean jarraitzen zuen, baita erditu zen egunean ere. Erditzeko garaian, medikuak nahiago izaten zuen emakumea baserritarra izatea kalekoa izatea baino.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com